



**Jose Luisen omenez  
bildu gerade gaurkoan  
zenbat jende, zenbat lagun  
gaurkoan ere alboan**

**emozioak gainezka  
korapiloa golkoan**

**berriz ere elkartzean  
jada gure den txokoan**

**elkartu gintuzun eta  
hola jarraitu asmoan**

**eskerrik asko benetan  
beti zaitugu gogoan**

**elkartu gintuzun eta  
hola jarraitu asmoan**

**eskerrik asko benetan  
beti zaitugu gogoan**

**Edurne Izagirre**

En honor a José Luis  
nos juntamos hoy  
cuánta gente, cuántos amigos  
hoy también alrededor  
la emoción nos colma  
un nudo en la garganta  
al reunirnos de nuevo  
en el que ya es nuestro txoko  
nos uniste y  
con intención de seguir así  
gracias de corazón  
siempre te tenemos en mente

**Bi urtetan zenbat krisi  
su gutxi, ugari kea**

**lagunak irensten dabil  
kartzelaren barrena**

**faxismok jarri nahi digu  
etsipenaren katea**

**paretak zulatzen gabiltz  
itxi dutelako atea**

**Ai Jose Luis zer ona den  
zuri ezker jakitea**

**nola batera daitezken  
borroka ta irribarrea**

**nola jakin nor den faltsu  
indefinizio zalea**

**nola izan jator ta leial  
eta aitzakirik gabea**

**Luix Marko**

Cuántas crisis en dos años  
poco fuego, mucho humo  
va engullendo amigos  
el interior de la cárcel  
el fascismo nos quiere poner  
la cadena de la desesperanza  
andamos agujereando las paredes  
porque han cerrado la puerta  
Ay Jose Luis qué bueno es  
gracias a ti saber  
cómo se pueden unir  
la lucha y la sonrisa  
cómo saber quién es falso  
el amigo de la indefinición  
cómo ser buena gente y leal  
y sin pretextos